


Bideodeian sartu aurretik, webguneak zure ordenagailuaren mikrofonoa eta webcama erabiltzeko baimena eskatuko dizu.

Nabigatzaileak eskaera leiho batean erakutsiko dizu eta “Baimendu” sakatu beharko duzu baimenak emateko. Webcam edo mikrofonorik gabe webguneak ezingo du Bideodeirik egin.



Bideodeian sartu baino lehen “Baimendu” aukeratu ez baduzu, Chrome konfiguratu beharko duzu:

1. Chrome ireki ezazu
2. Goialdean, eskuinean, egin klik “Gehiago” – “Konfigurazioa” aukeretan
3. Behealdean, egin klik “Aurreratua” aukeran
4. “Pribatutasuna eta segurtasuna” aukeran, klik egin gunearen “Konfigurazioa” aukeran
5. Egin klik kameran eta mikrofonoan
6. Aktibatu edo desaktibatu “Galdetu sartu baino lehen”
7. Dauden salbuespenak edo baimenak kentzeko, egin klik “Ezabatu” aukeran.